

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEZOKO UDALA

Administrazio Orokorreko Teknikari plaza lehiaketa-oposaketa irekiaz betetzeko onartutako oinarrien zuzenketa.

Tokiko Gobernu Batzordeak (2023-06-27ko D23/0826 dekretuan alkateak emandako delegazioen baitan) 2025eko martxoaren 11n egin zuen bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa: Administrazio Orokorreko teknikari plaza bat eta Teknikari ekonomiko beste bat oposizio-lehiaketa ireki bidez betetzeko onartutako oinarrietan zuzenketak egitea. Oinarri horiek Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2025-01-28an, eta 2025-02-13ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren (29. zk.).

Zuzenketa honela egin da:

Oinarrien 8. Atalean «Oposizioa», «3.Hirugarren proba» azpiatlean, hirugarren paragrafoan:

– *Honako hau dioenean:*

«Epaimahaiak lanpostuaren arabera egokitzen jotzen dituen tresna mota desberdinak erabili ahal izango dira (testa, elkarrizketa, talde-dinamikak, rol-probak...)»

– *Honela esan behar du:*

«Epaimahaiak lanpostuaren arabera egokitzen jotzen dituen tresna mota desberdinak erabili ahal izango ditu (testa, elkarrizketa, talde-dinamikak, rol-probak...). Edozein kasutan, elkarrizketa euskaraz egingo da.»

Bigarrena: Erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udalaren webgunean argitaratzea.

Lezo, 2025eko martxoaren 12a.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea. (2052)

AYUNTAMIENTO DE LEZO

Corrección de las bases aprobadas para la provisión por concurso-oposición libre de la plaza de Técnico/a de Administración General.

La Junta de Gobierno Local (dentro de las delegaciones conferidas por el alcalde en el decreto D23/0826 de 27/06/2023), en sesión celebrada el día 11 de marzo de 2025, adoptó, entre otros, el siguiente acuerdo:

Primero: Proceder a la corrección de las bases aprobadas para cubrir por concurso oposición libre una plaza de de Técnico/a de Administración General y otra de Técnico/a Económico/a, aprobadas por la Junta de Gobierno Local el 28/01/2025 y publicadas en BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 29 de fecha 13/02/2025.

Se procede a la corrección en los siguientes términos:

En la sección 8.^a «La oposición», subsección «3. Tercera prueba», tercer párrafo:

– *Donde dice:*

«Se podrán utilizar los distintos tipos de herramientas (test, dinámicas de grupo, pruebas de rol, etc.) que el Tribunal considere oportunas en función del puesto de trabajo.»

– *Debe decir:*

«Se podrán utilizar los distintos tipos de herramientas (test, entrevistas, dinámicas de grupo, pruebas de rol, etc.) que el Tribunal considere oportunas en función del puesto de trabajo. En cualquier caso, la entrevista se realizará en euskara.»

Segundo: Publicar este acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y la web del Ayuntamiento.

Lezo, a 12 de marzo de 2025.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria. (2052)